A1238

herrera-bidebieta

«Kontadores» gazteentzat

Gazte Zentrua jarri du martxan Udaleko Gazteri Sailak Bidebietan. Gazte Txoko honi «Kontadores» izena jarri diote, garai bateko ur kontagailu enpresa kokatua zegoen eraikuntza bereko zati batean jarri baitute txoko hau. Bertan, 16 urtetik gorako gazteek har dezakete parte, iradokizunak, proposamenak eta gazte esprientziak aurkeztuz.

Gazteri Sailak kaleratutako informazioetan garrantzi handia ematen zaio gaztearen parte hartze zuzenari eta hori da batipat Gazte Txoko berri honetan bultzatu nahi dena. Arduradunen ustetan, «*ideia berriak ekarrazteko lekua izan daiteke edota partaidetza bultzatzeko bidea. Besteekin elkartu eta komunikabidea berraurkitzeko lekua eskuratu nahi diegu gazteei*». Azken finean, taldean egin daitezkeen ekintza guztietarako erabil daiteke.



800 metro karratu dituen eraikuntza honetan lehen «kontadores» delako ur enpresa zegoen eta orain Lanbide Heziketa Zentru bezala egokitua dago.

«*Kontadores*» eraikuntza hau ekintza ugari eta desberdinak egiteko antolatuta dago: topaketa gunea, lantegia (espresio dantza), informazio eta dokumentazio aretoa, areto polibalentea (musika, bideo eta antzerki aretoa) daude bertan besteak beste.

Guztira, ia 800 metro karratu ditu eta San Pedro Ibilbideko 13. zenbakian topatuko dugu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Gaiztarroko zebra-bidea

Herreratik Gaiztarrora doazen semaforoek arriskuan jartzen dituzte oinezkoak. Jose Elosegi ibilbideak duen luzerak, kotxeei ematen die lehentasuna. Gainera zati hau aldapan behera izanik, kotxeek abiadura handia hartzen dute eta gidariek askotan ez dituzte semaforoak errespetatzen. Oinezkook zebra-bidea pasa nahi dugunean, nahiz eta semeforoa berde eduki, ondo begiratu behar izaten dugu alde batatara kotxeren batek jotzea nahi ez badugu.

Takaokatik Herrerara

Abesbatzen V. Ihardunaldian parte hartzeko Herrerara etorritako Takaokako emakume japoniarrek harrera izugarria izan zuten. Bai San Luis Elizan eskainitako kantaldian eta baita beranduago Euskal Giroan izandako afarian ere. Euskal Giroa elkartean egindako afaria lagunartekoa izan zen eta eskertzen jakin zuten japoniarrek.